



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

ANIMALIEN ELIKADURA XXI. MENDEAN

Artikulu honetan azaltzen diren gai guztiak Animalien elikadurari buruzko Nazioarteko I. Kongresuan landu ziren: Elikagaien Segurtasuna eta Berrikuntza. Ekainaren 10etik 12ra bitartean antolatu zen Donostia-San Sebastianeko Kursaal.

1. ZEINTZUK DIRA DATOZEN URTEETAN PENTSU SEKTOREAK IZANGO DITUEN BEHARRAK ETA ERRONKAK?

Sektoreak aurre egin behar die planteatutako arazoei, eta hobetu egin behar du bere lehiakortasuna. Gaur egun, aurreko egoerak sorrarazitako arazoei egin behar die aurre, hala nola: gehiegizko zatikatzea egotea, sinesgarritasun maila murriztea, lehengaien merkatua aldatzea, abeltzaintzako hainbat sektore hauskorragoak izatea eta sektoreak berak gaur egungo krisi egoeran berez dituen arazoak.

Kontsumitzaileari informazioa eskaintzea ezinbestekoa da konfiantza berreskuratzeko eta pentsuen ekoizpen industria ezagutarazteko.

Beraz, beharrezkoa da izandako lorpenak eta animalien elikadura eta abeltzaintza sektorearen eginkizuna ezagutaraztea, kontzientziaraztea eta sentibilizatzea,

Abeltzaintzaren egoerak zuzeneko eragina izaten du animaliak elikatzeko sektorean; beraz, sektoreak epe ertainera eta luzera iraun dezan ezinbestekoa da neurriak hartzea.

Gaur egun, abeltzaintza sektorean hainbat alderdik dute eragina, hala nola: haragien munduko merkatua, ekoizpen kostuen igoera, araudiak betetzea, nekazaritza politika jarraitua...

Honako behar eta erronka hauei buruz hitz egin genezake:

- Beharrezkoa da legedia modernizatzea eta sinplifikatzea: pentsuak etiketatzea, lehengaien katalogoa, OGMak, sendagai-pentsuak, eta abar. Izan ere, 2002ko Behien Entzefalopatia Espongiforme gaixotasunaren (EEB) eta dioxinen krisiaren ondorioz, araudi ugari sortu ziren pentsuen ekoizpena zorrozki kontrolatzeko. Epe honetan, halaber, pentsuak kaltegarriak ez zirela ziurtatzeko araudi berriak sortu ziren, besteak beste, 178/2002 Araudia eta 183/2005 Araudia.

Modernizatze horren adibide gisa aipa genezake Batzordeak onetsi egin duela Europako Parlamentuko eta Kontseiluko Araudia, pentsuak merkaturatzeari eta erabiltzeari buruzkoa. Araudi horrek hurrengo alderdi hauek jasotzen ditu:



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

- ✓ Merkatua gardenagoa izango da, EBko estatu kideek lehengaien katalogoa eta lehengai berrien erregistroa egiten badute.
 - ✓ Lehen, animalientzako pentsu konposatuak ekoizleek derrigorrean adierazi behar zituzten pentsuak ekoizteko erabiltzen zituzten lehengaiak eta portzentajeak. Gaur egun, betekizun hori indargabetuta geratu da, enpresen jabetza intelektuala babesteko.
 - ✓ Etiketatzeko praktika egokien gidaliburua osa dezake industriak. Batzordeak onetsi beharko du gidaliburu hori.
- Bestalde, sektoreak aurre egin beharko dio etorkizunean enpresak kontzentratzeko prozesuari, gaur egungo merkatura egokitu dadin eta industria sektore gisa lehiakortasun handiagoa izan dezan.
 - Ezinbestekoa da kontsumitzailearekin eta, oro har, gizartearekin komunikazioa izatea sektorearen irudia eta garrantzia balioztatzeko. Komunikabideetan, gehienetan, krisiari, arriskuei eta abarrei buruzko berri txarrak eskaintzen dituzte; baina, ez dute adierazten azken urteotan egin den ahalegina (inbertsioak, trazabilitate tresnak...).

Gainera, beharrezkoa da elkarrekin, administrazioek eta abarrek

komunikazio kanpainak egitea. Kanpaina horiek garrantzitsuak izaten dira sektorea ez dadin zalantzan egon alerta egoera guztietan, eta horrela desmitifikatu egingo litzateke pentsuak "kaltegarriak" direlako eta "osagai kaltegarri" eginda daudelako susmo okerra.

Neurri berean, beharrezkoa da OGMei buruzko informazio eta gardentasun handiagoa izatea. Horretarako, elikagaien segurtasunean, gizartean eta ingurumenean duten eragina ezagutarazi beharko litzateke, erostean kontsumitzaileek jarrera zehatza eta deliberamendu osoa izan dezaten.

2. ZEIN DIRA LEHENGAIEN MERKATUAREN ETORKIZUNEN ARLOAK?

Lehengaien merkatura merkatu aldakorra eta antzemandina da. Gainera, Espainiako pentsu sektorea kanpoko merkatuen menpe dago; beraz, prezioaren aldaketak zuzeneko eragina izaten du sektorean.

Laboreen eta oleaginosen azken lau ekoizpen kanpainak aldaketa handiak izan dituzte, 2007an elikagaien ekoizpenean mundu mailako krisia gertatu zenetik. Krisi horrek bere horretan dirau gaur egun ere.



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

Faktore ugari hartu zuten parte krisi hartan, eta eragina izan zuten fondoan, energian eta dibisen eraginpeko merkatuetan. Egoera horri gaur egungo krisi ekonomikoa gehitu behar zaio.

Honako hauek izan litezke etorkizunera begira egin beharreko gogoetak:

- Epe motzera eta ertainera lehengaien nazioarteko merkatuko prezioek gora egiteko joera izango dute. Ondorioz, 2007ko burbuilaren antzeko egoera sor liteke.
- Etorkizunean lehengaiak erostean erabakiak hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da informazioa izatea.
- Bioerregaiak erabiltzeak lehengai berriak dakartza animaliak elikatzeko: glizerina, DDGak eta beste.

3. ZEIN DIRA ANIMALIEN ELIKADURAN GERTA LITEZKEEN ETA SEKTOREAN ERAGIN ONURAGARRIA IZAN LEZAKETEN BERRIKUNTZAK?

Berrikuntzak sartu behar ditugu elikagai sektore sendoa eta finkatua lortzeko eta mantentzeko. Horretarako, beharrezkoa da enpresaren estrategia eta kudeaketa egokiak izatea, eta pentsuen ekoizpen modua, formulazioa, pentsuen banaketa... berritzea.

Beraz, garrantzitsua da, berrikuntzaren ikuspegitik, elikadura estrategiak diseinatzea, bai nutrienteen erabilera eta ekoizpen kostuak optimizatzeko, bai eta lortutako produktuak balioztatzeke ere. Ildo honetan, elikagai funtzionalak erabiltzea aukera egokia da; baina, oraindik, horien eginkizunari eta kontsumitzeko maila egokiei buruzko datuak eta informazioa falta dira.

4. ZEIN URRATS EMAN DIRA PENTSUEN ELIKAGAIEN SEGURTASUNA BERMATZEKO?

Pentsuen segurtasuna bermatzeko nahitaezkoa da APPCC sistema ezartzea, sistema malgua izatea (norberaren egoerara egokitzea), Praktika Egokiak gidaliburuak erabiltzea eta eragileak prestatzea.

Pentsuen higienari buruzko 183/2005 Araudiak honako hau xedatzen du: APPCC sistemetan oinarritutako prozedurak ezarri behar dira, edo animalien elikakatean gauzatzen diren jardueren arabera higiene praktika egokiak aplikatu behar dira. Araudia indarrean jarri zenetik egin da lan sektorea eskakizun horietara egokitzeko. Egokitze epe horretan honako gogoeta hauek egin dira:

- APPCC autokontrol-sistema oso tresna erabilgarria da pentsuak kaltegarriak ez direla



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

kontrolatzeko; izan ere, eragileak bere jardueran gerta litezkeen arriskuei buruzko hausnarketa egiten du eta arrisku horiek gutxitzeko edo deuseztatzeko kontrol neurri egokiak hartzen ditu.

- Zailtasunak daude eragileen artean APPCC plangintzak ezartzeko eta idazteko. Gehienetan, oso enpresa txikiak izaten dira, 10 langile baino gutxiagokoak eta beharrezkoa da sistemaren aurrean malgu jokatzea, kontuan izanik zein jardueraz ari garen.
- Animalien elikakateko eragile guztien eta kontrol ofizialaren arduradunen prestakuntza ezinbestekoa da APPCC sistemak behar bezala funtziona dezan. Bestela, sistema ez da ongi ulertuko, ez da aplikatuko eta ez dio inolako onurarik eskainiko enpresari pentsuen kontrola egiteko.
- Praktika egokien gidaliburuak erabiltzea garrantzitsua da eragileek pentsuen higienera buruzko araudiak bete ditzaten, dokumentu bakar batean bete beharreko baldintzak eta APPCC sistema zer den eta nola gauzatzen den jakinarazten zaizkio eta.

bermatzeko. Animalien elikadura elikagaien segurtasunari buruzko Europako sisteman integratzea elikagaiei buruzko legediaren giltzarri da. Araudi horrek "Abeletxetik mahaira" izeneko printzipioa ezarri zuen. **Printzipio horren abiapuntua da animalien elikadura etapa garrantzitsua dela elikakatearen hasieran.**

Halaber, pentsuen sektoreak iraun dezan ezinbestekoa da etorkizunean honako elementu hauek aintzat hartzea: animaliak elikatzeko sektorea berregituratzea; informazioa izatea eta lehengaien merkatuak ezagutzea; kontsumitzaileari informazioa eskaintzea eta berrikuntzak bilatzea.

5. ONDORIOAK

Hurrengo hau da Kongresuko ondorio edo ideia nagusia: **Pentsuen segurtasuna ezinbestekoa da elikagaien segurtasuna**